

50 urte
euskeraren alde

1967-2017



IGONE ETXEBARRIA

EUSKERAZALEAK

50 urte euskeraren alde
1967-2017

EUSKERTZALEAK



Bilbao
2018

© Egilea: Igone Etxebarria

© Argitaraldi honena: Euskerazaleak - Labayru Fundazioa - Bilboko Udala - Bizkaiko Foru Aldundia

Azala: Idoia Tolosa

Labayru Fundazioa

Colon de Larreategi 14 - 2. esk.

48001 Bilbao

Tel.: 94 443 76 84

Posta elektronikoa: labayru@labayru.eus

Fotokonposizioa: Fotocomposición Ikur, S.A.

Silutegia: Impresión Tecnigraf, S.L.L.

ISBN: 978-84-92599-76-9

Lege Gordailua: BI-1179-2018



Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea; Klaudio Barroeta, Euskerazaleak alkartearen presidentea; Lorea Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputadua.

Euskerazaleak alkarteak 50 urte bete dituala-ta, omentzeko jarduerak egin dira Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestuta. Alde batetik, 2017ko maiatzaren 15ean ekitaldi publikoa egin zan Carlton hotelean, sorrerako batzarra gogoratuz. Bertan batu ziran alkarteagaz berrogeta hamar urteotan hartu-emona euki daben hainbat lagun: ikasleak, laguntzaileak, kideak, lagunak. Eta eurakaz batera omenaldia babestutako erakundeen ordezkari gorenak: Juan Mari Aburto Bilboko alkatea eta Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputadua buru dirala.

Orain liburu honetan Alkartearen ibilbidearen barri batu dogu, gure hizkuntzaren eta kulturaren historian euki dauen tokiaren lekuko.

AURKIBIDEA

9	Leopoldo Zugaza: Cincuenta años después
13	Sorrerako Giroa
17	Sorrera-agiria eta sortzaileak
21	Alkarteko kide ezagun batzuk
30	Lehenengo ekintzak
33	Eskolak
35	Zer aldizkaria
37	Argitalpenak
47	Sareko argitalpenak
49	Beste jarduera batzuk
51	Beste erakunde batzukaz alkarlanean: Euske- razaintza, Kili-Kili
53	Omenaldiak



CINCUENTA AÑOS DESPUÉS

Me piden que relate mis recuerdos sobre la formación de Euskerazaleak. Asociación para el fomento del vascuence.

Pienso que la iniciativa nació de una propuesta de José Antonio Montiano, quien había tenido una academia muy conocida en Bilbao y por ello había ejercido muchos años como profesor.

A mí me habló por primera vez Jesús Acha que regentaba una oficina de la calle Diputación de Bilbao con el objetivo de dedicarse a la distribución del libro vasco, pero que dedicaba sus esfuerzos a la promoción de ikastolas que en aquellos años empezaban a aparecer en el panorama cultural vasco.

Ya funcionaban en aquel momento las ikastolas de Elcano, Algorta, Santutxu y otras.

Me refiero a Bizkaia que es donde se desarrolló la actividad de Euskerazaleak.

En las oficinas de Edili, en la calle Diputación, se celebraron las primeras reuniones para ir dando forma al proyecto. Éramos unas seis o siete personas.

Una de las primeras propuestas fue la de conseguir adhesiones de personas amantes del euskera que brindaran su firma al acta de constitución de la asociación.

Otra fue la redacción de unos estatutos que se presentarían en el Gobierno Civil para la inscripción en el registro de asociaciones. Este cometido se me encargó a mí y así lo cumplí.

La recogida de firmas que he mencionado quedó a cargo de otros asistentes a las reuniones.

La mayoría de los firmantes nunca participaron en la gestión de la Asociación.

Los objetivos de esta eran tan amplios y a su vez difusos como “el fomento del vascuence”.

Debo decir que yo puse “el fomento del euskera”, pero se me dijo que corrigiera euskera por vascuence para evitar problemas en el Gobierno Civil. Así se hilaba en la época.

Presentada la solicitud y aprobada por las Autoridades se convocó una asamblea constituyente que se celebró en el Hotel Carlton, y a la cual acudió gran número de asociados que habían comunicado su adhesión en los días precedentes.

En este acto se propuso una Junta directiva de la Asociación reduciendo el número de los iniciales constituyentes. Se nombraron los cargos de esa Junta siendo nombrado presidente don Jesús Oleaga. Poco después se trasladó el domicilio social a la calle Viuda de Epalza.

La primera actividad fue la distribución de un manual de



Leopoldo Zugaza eta Carmen Miranda, emaztea. Bilbao, 2017.

aprendizaje del idioma basado en el método de Xabier Peña, redactado por José Antonio Montiano, y financiado por Norbega, S. A. concesionaria de Coca-Cola. Posteriormente se distribuyeron nuevas ediciones de este manual y un segundo, complementario del primero. También se publicaron unos folletos de teatro.

De estos manuales se distribuyeron decenas de miles y fueron muy apreciados por el público.

También se publicaron los libros *Giza-soina* y *Nora zoaz* escritos por el P. Iñaki Goikoetxea, S. J. Más adelante se produjo



el traslado de la sede a la calle Colón de Larreategui y allí, disponiendo de más espacio, se empezaron a dar clases de euskera y a organizar sesiones de práctica de conversación euskérica.

Allí se planteó la campaña de recogida de firmas solicitando al Ministerio de Educación la implantación de la enseñanza del euskera en la primera enseñanza. Se recogieron más de 50.000 firmas aunque no siempre la iniciativa fue apreciada, todo hay que decirlo.

Una comisión formada por Jesús Oleaga, Juan Ramón Urquijo, José Antonio Montiano, Miguel Ángel Astiz y yo mismo hicimos entrega de las firmas, en volúmenes encuadernados, al Director General de Enseñanza Primaria en el Ministerio de Educación en la calle Alcalá de Madrid.

No sé qué efecto pudo producir esta acción, pero de lo que sí estoy seguro es que la confluencia, cada vez más generalizada, de iniciativas similares promovidas por las entidades más diversas crearon el clima para la progresiva normalización del euskera en la vida cotidiana del País.

Abundando en este criterio ante una pregunta en una entrevista que se me ha hecho recientemente sobre cuál era la acción

más importante que había promovido Euskerazaleak contesté sin ningún género de duda “El haber existido”.

En aquellos oscuros años el más mínimo avance era percibido como un importante logro.

A este respecto quiero recordar que un artículo de Luis de Castresana sobre el euskera promovió la incorporación de la palabra “eusquera” en el diccionario de la Real Academia Española. Los miembros de la Junta de Euskerazaleak tuvimos la satisfacción de recibir en nuestra sede al escritor, intercambiar ideas con él y felicitarle por su logro.

Así, paso a paso, se dio la ejecutoria de esa entidad cuyos cincuenta años ahora se conmemoran.

A título personal, la amistad que me unió desde entonces con aquellos con los que compartí la actividad en Euskerazaleak constituye el mejor y más grato recuerdo de aquellos años.

Leopoldo Zugaza

Durango, 16 de julio de 2017



Euskerazaleak Alkartearen argitalpen batzuk.



SORRERAKO GIROA

Euskerazaleak Alkartea 1967an sortu zan, euskaltzale taldetxu batek euskal hizkuntzari laguntzeko erabagia hartu ondoren. Hileetan ekinean eta ahaleginean jardun eta ostean, azkenean lortu eben Alkartea gauzatzea eta legez eratzea. 1967ko maiatzaren 14an izan zan hori.

XX. menderik gehiena, bai Bilbon, bai Euskal Herri osoan, Gerra Zibilak eta Francoren Diktadurak baldintzaturik egon da guztiz, eta hainbat gehiago euskereari eta euskal kultureari jago-kon guztia. Mende horren lehen herenean euskal kultureak bere historiako mailarik gorena jadetsi eban *Pizkundea* edo *Euskal*



Mendigoizaleen mobimentua indartsua izan da gure artean.



Lehenengo ikastolak. Larramendi, Mungia.

Pizkundea eritxon mobimentuaren bidez. Euskera-lantze meto-
doetan, literatura argitalpenetan, unibersidadea sortzeko egitas-
moa bideratzean, arte adierazpideetan... aurrerapen handiak
egin ziran. Gerra Zibila sortzean, osteraz, dan-dana etenda eta
isilpeturik geratu zan. Haren osteko diktadurea ez zan hobea
izan. Euskal usaina eban guztia galarazota egoan. Eta galarazpen
egoera horrek luzaro iraun eban, luzaroei, euskal hizkuntzaren,
literaturaren eta kulturaren alde *katakunbetako belaunaldia* deitu

izan danak ziharduan bitartean. Bertsolaritza izan zan, Bizkaian
behintzat, 70eko hamarkadan ondo sartuta be, debekupean egon
zan kultura-adarretariko bat.

Halanda be, 60ko hamarkadan giroa apur bat zabaltzen hasi
zan, eta azpian egoan egarria azaleratzeko lehenengo pausuak
egin ziran. Musika, kirola, dantzak eta antzeko ekintzak bidera-
tzeko eleizea izan zan aterpe nagusia; eleizearen aterpean hasi



Dantza-taldeak euskal kultura bultzatzeko zabaldu ziran. Berriz, 1961.

ziran taldeak osotzen eta jarduerak eratzen. Taldeotan euskal kultura zabaltzen joan zan, izen horregaz ez bazan be.

Billbon hainbat zantzu dagoz hirurogeiko hamarkadan. Ezagun antzekoak aitzeko: Lehenengo ikastolak orduantxe sortuko dira: Azkue ikastola eta Begoñazpi ikastola izango diranak, bata San Nikolas eta bestea San Anton parrokien gerizpean. Xabier Peña eta Euskaltzaindia euskerazko eskolak emoten hasiko dira;

ia parrokia edo auzo gehienetan dantza-taldeak eratuko dira, eta eurokaz batera euskera eta euskal kulturaren aldeko ekintzak; mendizale, *mendigoizale* taldeak sortuko dira han eta hemen eta gazte asko batuko dabe inguruan, eta ibilaldiak egitera eroan; abesbatzak be hainbat sortu ziran. *Txinpartak* musika eta antzerki-taldea be ordukoxea da; txistulariak; San Antongo euskerazko mezea eta abar.



Euskal kutsuko adierazpen guztiek indarra hartu eben aldi horretan, eta Bilbon inon baino gehiago; sarritan euskerarik ez ekienek edo erdi galdurik ebenen eskutik gainera, transmisinoaren kateak jarraipena euki egian, borondate sendoaz.

Inguru eta giro horretan eratu zan *Euskerazaleak* Bilbon. Alkartea eratu eben sortzaileak zeintzuk izan ziran ikusita, ezaugarri batzuk nahiko orokorrak ohartuko deuseguz kideoi: bilbotarrak, lanbidez prestakuntza eta maila onekoak, asko bai euskaltzaleak baina ez euskaldunak, kultureagaz ardura eta lotura sendokoak, eta gehienak gerra aurrean jaioak, aurreko giroaren mina eukena.



"Txinpartak" antzerki-taldea.



SORRERA-AGIRIA ETA SORTZAILEAK

Bizkaiko Gobernu Zibileko zigiluagaz sarrera emonda dago *Euskerazaleak*. *Euskeraren aldeko alkartea* sortzeko agiria. Bertan agiri da idatzirik zelan eratu dan Zuzendaritza:

«En Bilbao, a catorce de mayo de mil novecientos sesenta y siete, reunidos los reseñados al margen, se da lectura al proyecto de Estatutos para la constitución de la ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL VASCUENCE (Euskerazaleak) que en este acto se constituye, tomándose los siguientes acuerdos.»

Izenak berak argi erakusten dau zertarako sortu dan alkartea zein dan helburua: *Euskeraren aldeko alkartea / Asociación para el fomento del vascuence*.

Sorrera aktan agertzen danez, hainbat erabagi hartzen dira: Estatutuak onartzea, Zuzendaritza-batzordea zelan osatu, urtean 100 pezetako kuota ipintea, hilean behin alkartzea eta sorrera-akta bera Gobernu Zibilera eroatea. Zuzendaritza batzordea honetara osotuta geratuko da: Presidentea, Jesus Oleaga Etxeberria; presidenteordea, José Antonio Montiano Gallego; idazkaria, Jesús Atxa Agirre; diruzaina, José Luis Bengoa Zubizarreta.

Horreekaz batera beste honeek be sinatzen dabe agiria: José María Olaizola Azkue, Carlos González Etxegarai, Julia Berrojalbiz Berrojalbiz, Castor Uriarte Agirreamalloa, José Ezpeleta Etxebarria, Adrian Zelaia Ibarra, Miguel Angel Astiz Iglesias, Eusebio Erkiaga Alastrá, Fernando Zubizarreta Ipiña, José María Martín de Retana, Leopoldo Zugaza Fernández eta Juan Ramón Urkijo Olano.

Zuzendaritza batzordeak aldi baterako hartzen dau agintea, harik eta berrehun bazkide izatera heldu arte. Baina helburua igarri barik bete eben.

**Se crea en Vizcaya, «Euskerazaleak»,
una asociación para el
fomento del vascuence**

La Gaceta del Norte. 1967ko uztailak 26.



En Bilbao, a catorce de mayo de mil novecientos sesenta y siete, reunidos los reseñados al margen, se da lectura al proyecto de Estatutos para la constitución de la ASOCIACION PARA EL FOMENTO DEL VASCUENCE ("Baskerazaleak"), que en este acto se constituye, tomándose los siguientes acuerdos:

Primero.- Se aprueban los Estatutos que regirán la nueva Asociación.

Segundo.- Se acuerda que la Junta de Gobierno quede formada por los asistentes, en tanto que el número de asociados llegue a doscientos (200), en cuyo momento se convocará Asamblea General en Junta Extraordinaria, cumpliéndose la elección de la Junta de Gobierno que preceptúan los Estatutos.

En este momento la Junta de Gobierno se constituye en la siguiente forma:

Presidente: D. Jesús de Oleaga y Echeberria.

Vicepresidente: D. José Antonio Montiano Gallego.

Secretario: D. Jesús Acha Aguirre

Tesorero: D. José Luis Bengoa Zubizarreta.

y el resto de los asistentes, vocales.

Tercero.- Se acuerda asignar a cada socio una cuota anual de 100 pesetas, dejando en libertad a los asociados de aportar una cuota mayor.

Cuarto.- Esta Junta de Gobierno acuerda reunirse una vez al mes, dentro de la primera semana, debiendo el Secretario convocar estas Juntas con cuarenta y ocho horas de antelación.

Quinto.- Se encomienda al Presidente y Secretario que realicen las gestiones de presentación del acta de constitución y estatutos ante el Gobierno Civil de Vizcaya, en cumplimiento de lo ordenado por la Ley 191/ 1964 de 24 de diciembre de 1.964.

Sin más asuntos que tratar, firman la presente acta los asistentes:

José María Oleicola Azcue

Carlos González Echegaray

Jesús de Oleaga y Echeberria

Julia Berrojalbiz Berrojalbiz

José Antonio Montiano Gallego

D. Ceator de Uriarte Aguirresacalles

D. Jesús Acha Aguirre

D. José de Lapuerta Echeberria

D. Adrián Celaya Ibarra

D. Miguel Ángel Antia Iglesias

D. Jacobo Urquijo Alcega

D. Fernando Zubizarreta India

D. José María Martín de Retana

D. Leopoldo Eugenia Fernández

D. José Luis Bengoa Zubizarreta

D. Juan Ramón Urquijo Olaso

[Handwritten signatures and notes corresponding to the list of attendees.]

Alkartearen sortze-agiria, sortzaileen sinadurakaz.



Carlton hotelean egindako batzarra (1968-01-23).

Anaitasuna aldizkarian (1968-01-15) Xabier Gereñok sinatuta dago Euskerazaleak alkartearen Lehenengo Batzar nagusiaren kronika. Carlton hotelean egin zan, urtarrilaren 23an, eta halan dino berak: *Saloian 290 andra-gizon, hau da, bazkide guztiak.*

Bigarren Batzar Nagusia 1970eko otsailaren 2an egin eben, orduan Santiago Apostol zan Bilboko ikastetxean, 359 bazkide bertan zirala; aurrekoan baino ia 70 gehiago. Eta olatu hori goraka etorri zan hurrengo urteetan; abiada bizian, gainera. 1972. urteko memorian 2.700 bazkide daukiezala autortzen da.

Alkartearen egoitza, lehenengo egoitza, Viuda de Epalza kalearen 12. zenbakian egon zan. Baina handik urte pare batera aldatu ziran, harrezkero eta orain arte Alkartearen egoitza dan lekura, Colon de Larreategi kaleko 14. zenbakira.

Laguntzaileen artean, batzordekoek gainera, euskalgintzan izena euki daben persona asko egon dira. Beste batzuen artean, Manu Ziarsolo Abeletxe, Nikola Arrieta, Anton Landajuela, Eusebio Alkorta, Octavio Izaola, Genaro Kobo, Patxi Ansola, Karmelo Etxenagusia, Bonifacio Etxebarria, Jose Luis Goti, Jose Maria Makua, Mitxel Unzueta...

Hasiera-hasieratik argitaratu izan dabez barri-emote boletin modukoak, barruko jardueren jakitun ipinteko euren bazkideak eta euskalzaleak. Horreetatik ateraten da garbi, zelako ekintzak egiten izan dabezan eta zelako oihartzuna euki daben gizartean.

1968ko uztailleko boletinean zehatz-mehatz azalduta dagoz Alkartearen helburuak:

Umetxuentzako eta hizkuntza irakasten dan lekuetarako andereñoak gertau. Andereñoentzat ikastaro bereziak atondu, eta



VIZCAYA responde a la llamada de «Euskerazaleak»

“Euskerazaleak” en marcha
★ Dos vertientes en pro del vas-
cuence: Trabajar o ayudar
★ Se monta un cursillo de monitores
elementales para la enseñanza

USKERAZALE
EREA ERABILTE ALDEKO ALK
ZKI IBILTARIA (Soilik bazkideentzat egia)

IKASTARO BARRIA

10 izan ditugun ikastaroen antzera, Urriaren 20-an, astelenez, asiko ditugun, Oarkariak gertuteko ikastaroak.
titulu ori lortu gura dabenak, sail bitan bananduko ditugu:
iskerea, gramatika-bidez ikasi dabenak eta izkuntza orretan erretzen ditugunak, **ASTELENETAN** eta **EGUAZTENETAN** izango dira klasealdia
skaldunak izan arren, izkera ori, gramatika legeetan bera, jakin, nahi izan dutenak, **MARTITZENETAN** eta **EGUENETAN** izango ditue klasealdiak
eta, **BARIEKUETAN**,

Hedabideetan oihartzun handia izan eban alkartearen sorrerak. Adibideak La Gaceta del Norte 1967-07-26 eta 1968-02-08koak dira.

beharbada, ahalegin horrek jarraipena eukiteko kasuan, euren-
tzako Etxe aparteko bat zuzentzea be aitatzen da.

Ikasketak euskeraz edo ele bitan egin ahal izateko eskolak
sortzen lagundu.

Euskera irakasten jardungo daben *irakasleak* eta *oharkariak*
prestatzen jarraitu.

Ikasketa-bilera eratu gure “*Berbetea zaintzeko ta indartzeko*
gaindu bear doguzan koxkak eta untzeak” ikasteko.

Euskeraz eginiko liburuakaz eta euskereari ta euskal gaiei bu-
ruzko liburuakaz hornidurik Liburutegi bat osatu.

Antzerti-taldeak sortzeko zaletasuna bultzatu. Helburu
honen atzean, irrati bidez euskera zabaltzeko asmoa dago, eta ge-
gora begira zinea eta gainerakoak be beste hizkuntzetan lez geu-
rean be emotea.

Bertan zehazten da horretariko eskari asko jaso izan dabezala:
antzerki-jaiak, diskoak... Jenteak ondo eta gustura hartuko di-
tuan antzezpenak, esatariak, kantariak... behar dira. Eta horreen
jarduna ugaritzea ezinbestekotzat jotzen da entzuleak euskerara
erakarteko, dakienek erabili dagien eta ez dakienek ikasi.

Helburua lortzeko, sariak eskaintzea proposatzen da.



ALKARTEKO KIDE EZAGUN BATZUK

Jesus Oleaga Etxeberria

(Zeanuri 1914 - Bilbao 1998)

Euskaltzale zintzoa, legelaria lanbidez, eta kultura eta gizarteke ekintzaile bizkorra izan zan. Aita, Nazario Oleaga, legegizona izan zan eta Euskaltzaindiko idazkaria mende hasieran, Resurrección M^a Azkueren hur-hurrekoa. Jesus Zeanurin jaio zan, aita hango sekretarioa zala han bizi zalako, baina umetan

joan zan Bilbora. Gerra aurrean amaitu zituan Zuzenbide ikasketak eta gerraostean ekin eutsan beharren.

Euskerazaleak Alkartearen sortzaileetakoa eta lehenengo burua izan zan, 1967-1977 bitartean. Abokatuen Bazkunean zuzendaritzan hainbat urte emon ebazan –berak bultzatu eban erakunde honi euskerazko izena ipintea: *Bizkaiko Abokatuen Bazkune Ohoretsua* eta lanbide horretakoentzako euskerazko eskolak–, Euskalerriaren Adiskideen Elkartean Bizkaiko Batzordearen idazkari, Zulaibarko Lanbide Eskolako sortzaile eta eragilea, beste batzuen artean.



Agustin Zubikarairen omenaldia. Ondarroa, 1992.



Jesus Oleaga eta Iñaki Zubiri

Iñaki Zubiri Sanchez

(Bilbao 1913 - Bilbao 2003)

Euskerazaleak Alkartearen buru izan zan 1977tik aurrera. Horrezaz gainera hainbat idazlan egindakoa dogu. *Agur* aldizkarian hasi zan idazten, eta gero *Zer* aldizkarian hainbat lan argitaratu. Genero guztietako idazlanak ditu: *Oroitzak* (1975), memoria antzera; *Izadiko Pitxiak* (1989) eta *Txano* (2000), narrazioak; *Galdu. Txakur baten gorabeerak* (1979), *Morroia* (1989), *Mendekua* (1992), *Patxi* (1993), *Errotazar* (1994), *Basamortuko semea* (1995), *Txomin* (1996) eta *Matxalen* (2001) nobelak; eta *Bidetik amesetan* (1984) eta *Amesen ildotik* (1992), olerki-liburuak.

Gaztetan, Ingeniaritzako ikasle zala, gerreak harrapau eban eta Otxandiano Bataioian ibili zan borrokan. Gerraostean Erresistentziako buru izan zan, eta Argentinara atzerriratu behar izan eban aldi batez. Hasieran ez eutsien itxi ikasketak amaitzen, baina halanda be lortu eban titulua. Argentinatik etorri eta gero, lanbidezaz gainera, ondo ikasi eban euskerea eta idazle bihurtu zan. Horren erakusgarri da goian aitatu dan izenburu-zerrenda luzea.




Martin Olazar Uribe

(Gamiz 1927-2008)

Euskerazaleak Alkarteko presidente-kargua hartu eban 2003an, Iñaki Zubiriren ordeaz, eta hil arte eutsi eutsan. Horrez gainera, Aita Lino Akesoloren ostean, Euskerazaintzako lehendakari izan zan 1991tik aurrera.

Zer aldizkaria 1977an sortu zanetik hil arte, aldizkariaren buru jardun eban. Bertan hainbeste idazlan agertu ebazan, baina liburuak be idatzi zituan, leku-izenen ganeak, euskerari buruzkoak, erlijino-gaikoak, eta bere biografia *Zu, Martin!* izenekoa.

Gamiz eta Fikan umezaroa emon ostean, abadetzarako bi-dean ikasketak egin zituan Bergaran lehenengo eta Gasteizko Seminarioan gero. Ubide, Fruiz, Zeanuri, Bermeo eta Mungia izan ebazan abade-herriak. Baina abade izateaz ganera, euskaltzale zintzoa zan, eta herrigintzaz ardura handia hartutakoa.



Klaudio Barroeta Amorrortu

(Igorre 1922 -)

Euskerazaleak Alkarteko presidentea da 2008tik hona, aurretik Martin Olazar buru zala bera zuzendaritzako kide zala-ta. Lehenengo ikasketak Igorreko Marianistenean egin ebazan, eta gero, Klaretarrean sartu zan ikasketak egiten eta han egin ditu bide profesionala eta erlijiosoa, hainbat lekutan egonda.

Tolosara bialdu eben pastoral ardurak hartzeko, eta han bizi zala, 1974-2003 bitartean, Poxpolin ikastola sortu eta zuzendu eban. 2003an Bilbora etorri zanetik hartu-emona estutu eban *Euskerazaleak Alkatteagaz*, harik eta presidente kargua hartu arte.



Jose Antonio Montiano Gallego

(1910 - 1991)

Alkartearen sortzaile-taldeko kide eta, neurri baten, eragilea. Akademia euki eban Bilbon, eta kulturako sareetatik ezagutzen ebazan kideak inguratuta, alkartearen lehenengo pausoak emotea lortu eban taldeko buruetako bat izan zan.

Euskaldunbarria, eta jakitun handia irakaskuntza arloan. Juan Ramon Urkijogaz batera hiztegitxo elebidun bat argitaratu eban, gipuzkera eta bizkaiera oinarritzat hartuta.


10.000 berba inguru hartzen ditu guztira. Hiztegi horren berme ziuorra, Karmelo Etxenagusiak eta Xabier Peñak emondako aholku eta laguntasuna eta edukiari eginiko orrazketa dira.



Xabier Peña Albizu
(Tolosa 1914 - Donostia 1980)

Euskal hizkuntza irakasten eta zabaltzen emon eban bere bizia. Akademia baten jabe zan, eta bere metodo propioa eukan, *Euskal irakasbide laburra*, aldi horretan hainbat eta hainbat ikasle erabili izan ebena euskera ikasteko. Peña jaunaren eskoletatik ikasle asko igaro ziran, baina horrez gainera *Euskerazaleak Alkartean* be emoten ebazan eskolak. Bere ikasleak irakasle bihurtuz harrobi ederra ondu eban. Irakaskuntzarako bide barri bat be urratu eban, irrati-bidez euskerea irakastea.

Mendizaletasuna eta bazterrak ezagutzea gustukoa eban eta gazte asko bideratu ebazan zaletasun horretara. Bilboko euskalgintzan derrigorrez aitatu beharrekoa da, lehenengo ikastolak sortzen be bultzatzaile handienetarikoa izan zala.



Adrian Zelaia Ibarra
(Barakaldo 1917 – Bilbao 2015)

Umezaroa Sestaon emon eta ostean, irakasletzarako ikasketak burutu zituan eta horretan jardun lanean. Baina ondoren Zuzenbide ikasketak egin eta horretan bereizi izan zan. Zuzenbideko irakasle izan zan bere lanbidea luzaroan Deustuko Unibersidadean. Bizkaiko Foruan aditua izan zan. Foru Zuzenbidea ikertu eban ardura apartekoaz eta unibertsidadean sartu gai horren ikaskuntza. Herri aginteen aurrean gai horretan aholkulari be izan da.

Kultura, zuzenbidea eta hizkuntzagaz zerikusia daukien alkartetan parte hartu eban: *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea*, *Eusko Ikaskuntza*, *Zuzenbidearen Euskal Akademia*. *Euskerazaleak Alkartean* sortzaileetarikoa izan zan, eta gogotsu jardun eban bertan.



Juan Ramon Urkijo Olano
(Bilbao 1910 – Getxo 1991)

Sortzaileen taldekoa dogu hau be. Julio Urkijo hizkuntzalaria osaba eban eta haren liburuzaletasunari eta kulturarako ardureari jarraipena emon eutsiezan. Kultura-gizona zan dudarik barik, kultura-bizitzan guztiz eragina. *Sociedad Bilbainako* liburuzaina zan aldetik, euskal gaien bibliografia ondo be ondo ezagutzen eban. *Euskerazaleak Alkartean* hauspo izan zan, beste hainbat erakundetan moduan: *Euskalerriaren Adiskideen Elkartea*, *Bilboko Merkataritza Ganbara*, *Estudios Vizcainos aldizkaria*, *Deustuko Unibersidadeko Antropologia Astea*, zenbait eskolatako kontseilari.



Karmelo Etxenagusia, Eusebio Erkiaga

Karmelo Etxenagusia Uribe
(Iurreta 1932 – Bilbo 2008)

Hasieratik izan zan euskera irakasle alkartean. Euskera jator, herriko eta erraza erabiltekoa. Montianoren euskera-erdera hiztegitxoa, alkarreak bere irakaskuntzarako erabilten ebana, beronek goitik behera orraztua eta gainbegiratu da.

Alkartearen barruan Zuzendaritza-Batzordeko kide izan zan luzaroan eta eskolak emoten ebazan. Hortik gora, euskal literaturako lorategiak prestatu zituan, liburuak lortzea hain erraza ez zan garaian, ikasleei gure testu idatziakaz gozatzeke aukera bideratzeko.

Eleiz-liburuak euskeratzeko lan-taldean behar handia egingdakoa dogu. Beti hizkuntza gozoa eta ugaria erabilteko eukan trebeziagaz. Parte zuzena euki eban Seminarioko ikasleek euskerazko eskolak emoten hasteko erabagian, nahiko goiztiar.



Karmele Goñi



Tere Rotaetxe



Julita Berrojalbiz



Jesus Atxa



Miguel Angel Astiz



Leopoldo Zugaza



Manu Ziarsolo Abeletxe



Ana Uriarte

Beste kide batzuk be aitatzekoak dira, Alkartearen ibilbi-dean:

Jose Maria Makua Zarandona Zuzendaritzako kidea izan zan luzaroan, eta geroago Bizkaiko Aldun Nagusia. Julita Berrojal-bizek eta Tere Rotaetxek sorreratik bertatik parte hartu eben Al-kartean, Ikastolen sorreran oso eraginak, *Labayru Fundazioaren* laguntzaileak eta Bilboko orduko garaiko euskaltzaletasuna za-baltzen lan handia egindakoak. Jose Luis Goti medikua, euskal-tzalea, *Academia de Ciencias Médicasen* buruak hasieratik parte hartzen dau alkartean. Miguel Angel Astiz kazetariak hedabidee-tan Alkartearen barri zabala emon eban. Euskal kulturari lotu-tako ekintzei zabalkundea emoten bakarretarikoa zan. Karmele Goñi euskaltzalea eta herri-kulturaren ikertzailea, gero *Euskal Museoaren* zuzendari izango zan. Ikastolen mobimentuan be parte handia hartu eban. Mitxel Unzuetak zuzendaritzan parte hartu izan dau. Historia eta zuzenbide gaietan aditua, kulturaren babeslea.

Ana Uriarte Eubak azken urteetan Alkartearen lanak sa-reratzeko ardurea bere gain hartu eta hainbat lan egin izan dau.

Alkartearen eguneroko jardunari eutsi deutsie Iñaki Egu-rrolak eta Karmele Fernandez Ruiz de Eskidek. Iñaki ia hasieratik Alkartearen Zuzendaritzan ibilia da eta jarduera guztien koordi-nadorea, *arima*, Karmele Fernandez idazkaritzako zereginetan lagun dauela.



Jose Maria Makua.




Mitxel Unzueta Bilbao.



Anton Landajuela.



Juan Ramon Bilbao Arruza eta Karmele Fernandez.



Iñaki Egurola.

EL MINISTERIO DE EDUCACION, ABIERTO A LA PROMOCION DE LA LENGUA VASCA Y DE TODAS LAS REGIONALES



El director general de Enseñanza Primaria dialoga con los representantes de Euskera-leak, después de que éstos le presentaron un escrito apoyado por más de cincuenta mil firmas, en orden a la posibilidad de que la enseñanza del vascuence pueda ser implantada a todos los niveles de estudio.

(Europa Press.)

MADRID. — (Crónica de nuestro redactor, Miguel Angel Astiz.)

El director general de Enseñanza Primaria, don Eugenio López, cordialísimo, muy bien

ABC, 1968 - 10 - 30. Argazkian, ezkerretik hasita, Miguel Angel Astiz, Eugenio Lopez Ministerioko ordezkaria, Jesus Oleaga, Juan Ramon Urkijo, Leopoldo Zugaza eta Jose Antonio Montiano.



Una parte, al menos, de lo que pedíamos parece que ha sido atendida por el Ministerio, pues en el proyecto de la Ley General de Enseñanza se establece, por primera vez, el cultivo de las lenguas vernáculas en la enseñanza básica».

Ekintza horrek euskaldun eta euskaltzale askoren gogoa bizkortu eban; hainbeste urteko isilaldiaren ostean egoan egarriaren erakusgarri ona. Eta era berean horrek berorrek bazkide asko batu zituan alkartera.

Gure hizkuntza irakaskuntzan sartzeko helburu hori beteteko beste bide bat izan da eskolei eurei laguntasuna emotea, dala lege bideak zelan urratu argitzeko, dala diruz. Behin baino gehiagotan jasoten da memoria eta egitasmoetan laguntzeko prestutasun eta borondate hori lehentasunezkoa dala, baina beti be besteren arloan sartu barik.

1968ko jorraleko boletinean *Euskera-bidez irakastea* artikulua Alkartearen jarduera azaltzen dau, lege arloan zelan jokatuko aztertzeko eta. Erabagiak bost puntutan laburtuta dagoz, eta gehien baten lege-babesa eta aholkua eskaintzeko dira. 1970eko batzarrean be, urteko jardunaren laburpenean, honetara jasorik dator:

«Ikastolei Laguntza ardura aundiko arazoa da auxa. Asi doguzan lanetatik, zaindu bearrekoena. Lenengo egunetatik jardun gintzazan onetzaz, al zanik egokien indar aundiko lan au aurrera eroateko.

İñoren bitartean sartu barik lagundu bearra geunkon, gure Alkartasuna sortu baño lenago asi ziranei. Ondo pen-

tsau ondoren, milla bederatzireun eta irurogeta zortzigarrenako Apirillean, jakinazi geuntzuen dan-danoi, artu genduan bidea, ta bertatik jarraitu dogu.

Onu eske artu doguzan eskari askori erantzun dau-tsegu. Baita gure laguntza eskiñi be, bearrean aurkituten diran ikastolei. Askori lagundu dautsegu euren joan-eto-rrietan.

Bi aldiz, geure kontura artu genduan, ipini eutsezan eragozpenak zuritzeko ardurea. Guztieri ezin erabagi izan dautseguz euren arazoak, gure eskuetan ez dagolako egitea.

EUSKERA ZALEAK

EUSKERA ERABILTE ALDEKO ALKARTASUNA

IDAZKI IBILTARIA - (Solilik baskideentzat egilea) - 7.gña.

Bide barriak asiaz...

Egunerik baten irakurri al izan dozu, gure Batzorde Arterkari talde batzuek alkarrikustea izan ebala Madrilen irakaskuntzako Lenengo mai-lisko Arterkari nagusiak, Eugenio López jaunak. Zuek baturiko 50.803 firmak bideetako liburu lodia berari emun geuntzuan eta gure errialdean euskera irakasteko dagozan eragozpenak erret-tuteko herbetan jardun.

Barriketaldia luzea izan zan, atsegia ta guztiz onartua. Arterkari Nagusiak bere izenean eta baita Ministru Jaunen izenean be, Ministeriaren aldetik, euskera irakasteko ta zabaltzeko eragoz-penik ez dagoala esan euskun, eta bai ostera, asmo sendoa, gaigarri ez dan kultura-oltxorra uste dana, zainduteko.

Gure oarrak maitekor jaso zituan, eta jardun-alean, eragozpenak eta okerrak zuzendu bere bai, eta alegin orretan ekiteko, gure laguntasuna eskatu euskun.

Biarmon goizean, txera baidintz edo aundia-ogoz artu ginduzan Villar Palasi, Ministru jaunak, eta Arterkari nagusiak jakieraz euskun Minis-terioaren jokabide egokia berresan be bai.

Labur, geure alkarrikustea orretatik guztiz poik eta itzaropentzu biurtu gihela. Arterkari, BBko Inspezióan izan gara eta gure itzaropena indartu egin deusku agerraldi orrek. Emendik go-rakoon, auzolana eskiñi ta eskatu euskuen ezkeru, egokiro laguntzeko gerturik ogongo gara, umeko-la edo ikastola bitarikoa sortu edo legezpean ezarri gura dabenei, legak ekaitzen diran beste zertze-larik beko ezkeru, jakifa.

Jakin bele ba, premiñea daben guxtiak, gure-ganatu leitekeala ardura barik, argitasun eta la-guntatun eske. Oñxe da gure eginbearra ta alegin egingo dogu beteteko.

Eta arnaitu baño izen, gure esker ona agertu nai dautsegu, euren firmakaz bide zabalgua au lortzen lagundu deuskuenei, eta bator bere, adia-bide artean firma-billa ain gartsu ekin eutsenei.



Beste batzuk oster, eragozpenak euki arren, ez dira etorri laguntza eske.

Nai doguna da, jakin daiela dan-danak, gertu gagozala arazo onetan edozeini laguntzeko».

Eta 1972ko memorian be barriro ikusten dogu horren aita-mena:

«Euskera aldez jokatzeko, ikastola ta lagunarteetara erantzun bearra izaten dogu, geure onuak emon eta aurrera bidean jartzeko; jakina, Eziketa Legearen barruan. Lan astuna baiña emokorra gure izkuntzarentzat».

Hasiera-hasieratik beste helburu bat be argi agiri da: antzerkia lantzea. «Ez da herri-jakintzarik antzerki barik» esaldiaz on egiten dabe antzerkiaren aldeko jokaera. Euskereak aurrera egingo badau, antzerkia behar-beharrezko dauela aitzen emoteko. Ahalegin saioak egiten ditue antzerki-talde bat sortzeko, esatariak prestatzeko, beti be gerora hedabideetan esatari onak eukiteko asmoagaz. Tamalez ekimen honek huts emon eban gatzatzeko orduan, antza.

EUSKERA ZALEAK

EUSKEREK ERABILTE ALDEKO ALKARTASUNA

IOAZKI IBILTARIA - (Solilik bazkideentzat egia) - 1968 JORRAILLEAN

EUSKERA-BIDEZ IRAKASTE

Euskereak irau dagian, eragozpenik audientetako auz da: gure seme-alabak euskeraz ikasi eta jarduteko eskola egokiak ez izatea.

EUSKERA ZALEAK orainarte dagoan bide medarra zabaldu egin gura dabe, lege-barruan irakatsi dagien gure berbetan eskolatan, Euskaltzaindiak Madrildiko Ministerioan daukan eskubideari alegen osoz lagunduz. Onestarako laster egin gura dogun zabalkurdean, zeuen laguntasuna eskatuko deusugu.

Baifia bitartean, oraingo legeak lagaten daben aukera apurraz baliu nai dogu.

Artezkar Batzorde onak arazo au sakon ikasten jardun izan dau, eta onezaz auz erabagi:

LENENGO.—Gure Alkartasuneko direan lege-gizon batzuek atonduriko komisiño eratu, oraingo legepean euskeraz ta euskeraz irakastea noraino aldu leitezazan ikasi dagien.

Txosten onen lenengo gaik komisiño orrek daukaz daga-neko ta bere erikala izaro baiña leze emongo deuskula uste dogu.

BIGARREN.—Berbete bitariko direan ikastolei laguntzeko berarizko Batzordetako taldea sortu dau. Laguntasun ori gurtiei egin nai deusegu, ikastolen ta beste eskolen arduradunak EUSKERA ZALEAK-eko bazkide izan ala ez.

Irakaspena euskeraz daukan edo jarriko dauan edozein irakaslekuok egin leikice Batzordepeko orreri laguntasun-ekabidea ardura barik.

IRUGARREN.—Irakasleku orretakoei EUSKERA ZALEAK egin leikioen laguntasuna edo landiketa, onetarikoa leikice:

a) lege-argibidekoa, legepean ezarteko egin bear direan joan-etorriak adierazaz.

b) teknika ta irakaskintza-argibidekoa, ta irakasleak aurkitzeko ta gurtuteko laguntasuna; ikasbideak; orbesteko egotaldiak; eta abar; eta

c) diru-laguntasuna, gure Alkartasun onek al dauan gifoan.

LAUGARREN.—Argi geratu bedi zer au, oster, EUSKERA ZALEAK irakasleku bateri ala besteari edozetarikoa laguntasuna eskiri arren, irakasleku orrek ez dabela bapere buru-jabetasuna izango dau eta gure Alkartasunak ez dau erantzupenik izango iñoren aurrean, irakasleku orrei dagokienez.

BOSKARREN.—Edozein laguntasun eta edonori egia, beti bai beti Alkartasun onek legebarruan egin legiana bakarrik izango da.

OARKAREN IKASTALDITXUA

Gerago gure Alkartasun onen gure berbetan irakatsi eta jarduteko eskola egokiak ez izatea.

Irakasleku orrek egin gura daukan bide medarra zabaldu egin gura dabe, lege-barruan irakatsi dagien gure berbetan eskolatan, Euskaltzaindiak Madrildiko Ministerioan daukan eskubideari alegen osoz lagunduz. Onestarako laster egin gura dogun zabalkurdean, zeuen laguntasuna eskatuko deusugu.

ZINTZOTASUNARI SARIA

Bizkai-Euskeraren laguntasun, 1. batzaldi ori eratu dogu.

Beraz, saria da, ba dabigun, baita aurrera irakatsiaren barruan erortu egin gura irau dogu; orrelan, aurrera irakatsi auz, gurtiak jakingo dabe, gure irakatsi irakatsi gurti dagian gurti, erortu laguntzeko ta laguntzeko irakatsi gurti, gurti. Ba leikice auz egin dogun modu au, egokiera ez baita; baita aurrera irakatsi erortu erortu irakatsi gurti, gurti.

Aragaladan egin dogulako eta zabalkunde auzi barik, saria da, ba dabigun, baita aurrera irakatsiaren barruan erortu egin gura irau dogu; orrelan, aurrera irakatsi auz, gurtiak jakingo dabe, gure irakatsi irakatsi gurti dagian gurti, erortu laguntzeko ta laguntzeko irakatsi gurti, gurti. Ba leikice auz egin dogun modu au, egokiera ez baita; baita aurrera irakatsi erortu erortu irakatsi gurti, gurti.

EUSKERARI BIURTZAILEAK

Euskeraz irakatsi argi-argi egin gura irakatsi gurti, gurti. Ba leikice auz egin dogun modu au, egokiera ez baita; baita aurrera irakatsi erortu erortu irakatsi gurti, gurti.

Gure berbetan irakatsi gurti, gurti. Ba leikice auz egin dogun modu au, egokiera ez baita; baita aurrera irakatsi erortu erortu irakatsi gurti, gurti.

SARIAK ORDANTZEA

Orainarte, Barneen barneen egin dogu bazkideen saria auz egin. Baita ba diru gurti gurti. Orainarte, erortu gurti, gurti. Ba leikice auz egin dogun modu au, egokiera ez baita; baita aurrera irakatsi erortu erortu irakatsi gurti, gurti.

Orainarte, Barneen barneen egin dogu bazkideen saria auz egin. Baita ba diru gurti gurti. Orainarte, erortu gurti, gurti. Ba leikice auz egin dogun modu au, egokiera ez baita; baita aurrera irakatsi erortu erortu irakatsi gurti, gurti.

Orainarte, Barneen barneen egin dogu bazkideen saria auz egin. Baita ba diru gurti gurti. Orainarte, erortu gurti, gurti. Ba leikice auz egin dogun modu au, egokiera ez baita; baita aurrera irakatsi erortu erortu irakatsi gurti, gurti.

Orainarte, Barneen barneen egin dogu bazkideen saria auz egin. Baita ba diru gurti gurti. Orainarte, erortu gurti, gurti. Ba leikice auz egin dogun modu au, egokiera ez baita; baita aurrera irakatsi erortu erortu irakatsi gurti, gurti.

BIZKAI-AURREZKI-KUTXAK Bilbon eta Bizkai-lurraldean gizarte-mesedegille ta kultura lan zabalean egin daroa eta osasun-aldeko lanik audientia ta egokiena.

Irakaskuntzarako laguntza eskaintzen.



ESKOLAK

Hasiera bertatik Alkartearen ekintzarik behinena euskal ikastaroak sortzea izan zan, bai euskaldunak alfabetatzeko, bai euskerarik ez ekienak ikasi egien. Ibilbide horretan hainbat eta hainbat ikasle igaro ziran bertako eskoletatik. Datuetara etorrira, 1977an 502 ikasle euki ebezan, 1978an 460, 1981ean 465, 1982an 402, 1983an 298, esate baterako.

Udetan be ikastaroak emoten ziran. 1979tik 1984ra bitartean 65-80 ikasleek parte hartu eben horrelako eskoletan. Data horretatik aurrera, gainerako euskaltegiatako antzean, matrikulak behera etorri ziran eskoletan hizkuntzaren irakaskuntza arautu ahala.

EUSKERTZALEAK
EUSKERA ERABILTE ALDEKO ALKARTASUNA

euskal-ikaskizunak egin ditu, Alkartasun onak atonduak,
eta bere gertakizunez, bear dan eran egokiturik dago,
O A R K A R I lez, euskeraz bizkai-izkelgiz irakatsi al
izateko, _____ mailan.

Bilbon, 19 _____ gnko _____ ren _____ -n

On eretxia,
LENDAKARIAK

IRAKASLEA.

Monitore agiria.

EUSKERA ZALEAK
EUSKERA ERABILTE ALDEKO ALKARTASUNA

IDAZKI IBILTARIA (Soilik bazkideentzat egia) 6-gn

Ikastaro barrirako Alkartasun-lanak

Gure Etxe barrian teki aundilagor dogun eskero, Urriaren 15-etik gora, lan eta ardura barrietan asiko gara, eta gure bazkideak atak zabali izango dituz lan orreitan tarteko izan daitezak:

I.—EUSKERA ERABILTEKO DAGOZAN ERAGOZPENAK IKASTEKO BILLEREA
Ilbera, lenengo ta irugarren martitzenetan, gabeko 8-rotan izango dira batzeko egunak, Urriaren 15-etik gora.

II.—OARKARI DIPLOMADUNENTZAKO IKAS-BILLEREA
Egustienetan izango da batzeko eguna, gabeko 7,30 etan. Egin doguzan Billerenan tarteko izan direnak eta orain diplomadun direnak dira onetarako dituzak, euek ikasla sakonda gura dabena eta gugaz artuomenean jarraitu.
Urriaren 16-tik gora.

III.—OARKARI IZAN NAI DABEN EUSKALDUNENTZAKO IKAS-BILLEREA
Barikuetan, gabeko 7 ta ordietan, Urriaren 18-tik gora.
Euskeraz jakin arren, gramatika arloan esjakilik direnak dabe omen euren lekua, irakasten asteke gertau daitezak.

IV.—OARKARI IZAN NAI DABEN EUSKALDUNBARRIENTZAKO IKAS-BILLEREA
Euskeraz gramatika-bidez ikasi dabenek egiten deutezugu dei au, sentzun eta berba egitiaz, euskeraz naitz maila orrezenean bade bere, irakasteko gerturik jarri daitezak.

Gorago izentau doguzan Billerenan tarteko izan gura dabenek gure Bazkideak, betoz lenkallen gure Etxe barrira: COLON DE LARREATEGUI KALEAN, 14-GN, 2-GN, ESKUMATARA. Goizean, 11-etatik ordu 2-etara ta arratsan, 5-etatik 8-etara.



25. urteurreneko ospakizunean, 1992an. Ezkerretik hasita, Imanol Lejarza, Bitori Agirre, Kepa Dañobeitia eta Karmele Fernandez, hasierako irakasle taldekoak.



2017ko asanblea. Paul Atutxa, Itziar Arrieta, Klaudio Barroeta, Karmele Fernandez eta Iñaki Egurrola.

Irakasleen artean, hainbaten izenak aitatu daitezke. Hona hemen batzuk: Karmelo Etxenagusia, Jose Maria Makua, Kepa Dañobeitia, Jon Malaxetxebarria, Bitori Agirre, Bautista Goiakoetxea, Felipe Olazarán, Benito Otazua, Josu Arregi, Bernardo Ibarra, Imanol Lejarza, Elixabete Elgezabal, Jose Agirre, Josu Legarreta, Inazio de Guzmán, Ixidor Etxebarria, Jose Agirrezabala, Margari Alonso, Agustín Etxebarria, Karmele Fernandez, Iranzu Dañobeitia, Jone Zabala, Sorkunde Bilbao, Kontxa Barrutia, Jose Luis Muiñozhierro, Luis Larrinaga.

Emondako ikastaroetan era askotakoak dagoz: euskal-dunentzat, gramatika ikasteko; gramatika ikasita euki bai, baina berbaz erreztasuna lortu gura dabenentzat; euskerarik arean be ez dakienentzat; *oarkari* izateko ikastaroak; euskal literaturakoak.

Oarkari edo *monitore* izateko agiria emoten eban Alkartek. Hau da, eskoletan euskera irakasteko behar zan beste irakasle ez egoanez, hainbat jente, andereñoak batez be, gaitu edo trebetu ebezan, ume txikiei eskolea euskeraz emon ahal izateko, irakasle titulurik euki ez arren. Alkartearen bitartez lortu zan beste leku batzuetan be eskolak emotea, irakasleak bialduta. Halako kasuak dira, esaterako, Injineruen Eskolan eta Jakintza eta Medikuntzako Ikastetxean.

Ikasteko gogoia indartzeko, *Zintzotasunari saria* jarri eben. Sari hori, ikasten ekinak ziran ikasleen ahalegina eskertzeko zan, urte osoan eskoletan zintzo ebilzanak saritzeko. Sari ederrak ziran beti, gainera: mila eta bostehun pezetako hainbat sari, mila pezetakoak be hainbeste. Emaizta egokia izan ei zan.



ZER ALDIZKARIA

A lkartearen sorreratik ia agertu zan, han-hor-hemen esanda, aldizkari bat egiteko gogoia eukiela, baina urte batzuk joango ziran helburu hori bete arte. Azkenean, 1977ko uztailean argitaratu zan lehenengo zenbakia, *Zer* izenagaz. Harrezkero hutsik egin barik urten dau hilean-hilean *Bizkaitarrai bizkaieraz* hainbat gairen gaineko barri emoteko. Lehenengo zenbaki horretan bertan agiri dira aldizkariaren birtatez Alkartek bete gura dituan helburuak.

Alde batetik, euskerazaleak asko izanda be, alkarren barri gixti ei daukagu eta hutsune hori beteteko asmoaz ei dator aldizkaria. Bigarren gogoeta bat be agiri da: beste aldizkari batzuk be badagozala egon, baina ez ei dira leiduten. Arrazoi horregaitik, irakurteko erraza izatea da helburua.

Ze eratako gaiak landuko diran be bertan argituten da: herriko kultura eta jakintza; idazlerik ospetsuenak, alkarriketak, gaurko arazoak, baserri eta arrantzaleenak, gizarte-arazoak, aberri-gaiak, bertsoak, barriak, kirolak e.a.

Aldizkaria bizkaieraz egingo dala iragarten da, horixe dala-koan euskerea batzeko biderik onena, lehenengo pausoa. Bizkaiera batua, jasoia erabiliko da, ahozkotik joskera eta esakerak hartuta, baina ez herri batekoa bakarrik, kasurako.

Eta amaitzeko, gaiak bakez erabilteko asmoa iragarten da; hau da, eztabaidak edo eretxi ezbardinak hartzeko prest agertzen

ZER
ALDIZKARIA
426. zenbakia
2016 LORAILA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**

www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

KiLi-KiLi
EUSKERA POZGARRI
Zenbat egin eta alegein, alkarrekin... kili-kilika

Kili-Kilik 50 urte
musutruk

1966
2016

ERAKUSKETA:
martxoaren 18tik ekainaren 26ra
Bilboko EUSKAL MUSEOAN
Unamuno plaza, 4

Kristobal Kolon, Nafarroako
IVn Karlos erregearen
Semea izan ote zan? (XI)



da, baina ez alkarregazko eztabaida garratzean. Herriaren alde egitea da azken helburua.

Aldizkarian hainbat goiburu dagoz, atalak bereizteko: *Gaurko arazoak, Kontu-kontari, Berbaz, Barriak, Idazleak, Gizandiak, Liburuak...* Izenburu bakotzak berak adierazten dau artikulu horren edukia gitxi gorabehera zelangoa izango dan. Euskera ikasteko ataltxu bat be tartean da.

Idazleen artean izen asko aurkituko doguz, eurretatik hainbat ondo eza-gunak euskal letretan eta euskalgintzan: Josu Arenaza, Martin Olazar, Augustin Zubikarai, Josu Arregi, Anton Landajuela, Manu Ziarsolo, Julene Eguskizabal, Anes Arrinda, Zenon Uriguen, Agustin Arrien, Jose Iñaki Madariaga, Txomin Garmendia, Agustin Etxebarria, Josu Ormaza, Letona, Zangroniz, Klaudio Gallastegi, Manuel Estonba, Aita Martzel, Bitor Atxutegi, Lino Akesolo, Paulin Solozabal, Aita Onaindia... Eta beste asko ezizenaren azpian gordeta: *Utarsus, Egiluze, Euskaldun Barri, Urkiola, Leio, Norbait...*

Beste guztien gainetik, aldizkarian pisu eta ardura gehien hartu izan dauen idazlea Martin Olazar Uribe izan da. Aldizkaria sortu zanik eta beraren heriotzara arte aldizkariaren zuzendari izan da. Hilean-hilean aldizkaria osotu beharrak zama handia dakar, eta behar horri berak erantzun izan deutso hainbat eta hainbat urtean, laguntasunak laguntasun. Ordu-tik aurrera Iñaki Egurrolak daroa ardura eta kolaboradoreen artean Pablo Atutxaren lanak hartu dabe leku handia.

Zer aldizkaria izan da, aldi berean, Alkartearen oroitzidazkien ager-karia be. Urteko Batzar Nagusirako deia egiteko eta haren akta argitaratzeko be aldizkaria izan da bitartekoa. Han dago jasota Alkartearen ibil-bidea, urtez urteko batzarren barri ikusi ezker.

Beste alde batetik, ipuin-lehiaketetan irabazle gertatu diran narrazi-noak be aldizkarian ikusi izan dabe argia. Irabazitako sariaz gainera, argitaratzea bera be saritzat hartu izan dabe hainbat idazlek; batzuk ezagunak, beste batzuk hainbakoak.



ARGITALPENAK

Euskerazaleak Alkartea sortu ebenen lehenengo helburua euskerea erabilten laguntzea zan, Bizkai osoari, baina batez be Bilboko uriari. Euskerea irakastea izan zan helburu hori beteteko pausu garrantzitsuenetako bat. Baina, orduko sasoian eskolak emoteko materialik, langairik, nekez egoan. Horregaitik, material didaktikoak eta irakurgaiak atondu eta argitaratzea lehentasunezkoa bihurtu zan berehala Alkartearentzat.


Ahalegin horren emaitzak era askotako lanak dira. Multzo baten euskera ikasteko metodoak, gramatikak, hiztegiak eta ariketa-koadernoak sartuko lirateke.

Eta beste baten irakurgaiak, umeentzat zein helduentzat. Atal honetan aparteko lekua hartzen dabe alkarrizketa modura eratutakoak: testu errazak, hizkuntza ikasten dabizenak berbaz hasteko ahalik arinen, gramatikako arazoakaz atzeratu beharrean.

Hizkuntzaren erabilera mailakatuta dago, *euskera erreza* da gehien erabilten dana, eta mintzamenari lehentasuna emonda. Esataritza eta antzerkia bultzatzen dira gehien, eta testuok horretarako bidea eskaintzen dabe.

INICIACIÓN AL ESTUDIO DEL EUSKERA (1967)

Xabier Peñak eta Jose Antonio Montianok idatzitakoa da, Xabier Peñaren metodoaren eredura. Izenak berak adierazten





dauenez, hizkuntzaz jabetzen hasteko lehenengo pausuak proposatzen dira bertan, euskera ikasteko irratiko saioen erritmoari jarraituz.

Ikasgai guztietan egitura bera aurkituko dogu: hiztegia, gramatika-arauak eta ariketak. Hirurogeta bost ikasgai dira guztira, eta ostean ikaslearentzako osagarri batzuk datoz: bederatzi alkarriketa, sei ipuin, hiztegitxua, alkarriketa eta ipuinen itzulpena eta aditzaren laburpena.

Liburu hau asko be asko zabaldu zan. *Fanta*-ren liburua esaten jakon, koloregaitik edo, baina *Coca-Cola* enpresek babesten eban.


Hamar mila aleko tiradak egin arren, igarri orduko amaitu egiten ziran danak. Etxe guztietara heldu zan ia; merkatariek be lagundu eben zabaltzen, doanekoa zan eta.

Euskera ikasteko egarria egoan; testu-libururik, oster, ez. Modu erraz eta atseginen hizkuntzaren egitura oinarritzako ikasteko metodoa izan zan. Berbaz baekiana idatziaren moldera ekarteko modukoa, eta ezer ez ekianak lehenengo pausoak egiten hasteko be guztiz egokia.

MANUAL DE CONVERSACIÓN EN EUSKERA (1975)

Liburuaren kredituetan dino:

«Euskerazaleak Asociación para el fomento del Euskera agradece a Imanol de Rotaetxe la cesión desinteresada de



MANUAL DE CONVERSACION EN EUSKERA

Serie de guiones preparados por:

EUSKERAZALEAK

Asociación para el fomento
del Vascuence.

para: cursos radiofónicos, clases elementales o trabajo personal.



«sus ejercicios de conversación para aprender a hablar el euskera que debidamente corregidos por Manu de Ziarsolo Abeletxe y Xabier Peña han servido para componer este manual».

Liburuaren edukia alkarrizketak dira, mintzamina lantzeko, irrati bidez euskerea irakasteko nahiz bakarkako lana egiteko.

Irratian egiten ziran euskera ikasteko saioak, beti be, alkarrizketa modura. Liburu hau eta bilduma honetan aitatuko diran beste batzuk be alkarrizketa daukie oinarrian, metodologia jakin baten adierazpide moduan. Alkarrizketa laburrok hizkuntza erabiltzen hasteko lehenengo pausuak ziran, modu erraz eta atseginetan hizkuntza bizira heltzeko bidea. Eta ez hori bakarrik, antzerkia lantzeko ahalegina eta arduera be helburu beragaz lotuta dago.

Alkarrizketak euskeraz eta erderaz emoten dira, ahoz-gora esateko. Oso metodo praktikoa da, ikasleek hasiera-hasieratik aurreratzen dabela igarteko moduan. Ganera, bakarka ikasteko aukera be emoten da, alkarrizketok entzun eta errepikatuz. Esaldiak laburrak dira, buruz ikasteko modukoak, eta hainbat kontestutan erabiltekoak. Ikaslearentzat esker oneko metodoa da, aurrera egiteko gogoia emotekoa. Gramatikan sakontzea baino gehiago, ikasleak hizkuntzara zaletutea lortzen da.

EUSKAL IRAKASBIDE LABURRA (1. MAILA)

Xabier Peñaren metodoa da, eskoletan gehien erabili izan dana. Metodologia argia dauka: lehenengo hiztegia ikasi, hu-



rrengo aditza, eta gero izenlagunak eta adizlagunak. Behin hiru arlo horreetan oinarriak ondo jarri ezkeru, hurrengo esaldiak sortzea da. Gero irakurri, eta ondoren idaztea dator.

Azkeneko ikaskizunetan gauza barri batzuk agertzen dira: hots-hitzak, ume-hitzak, bizibideak, kristinauen otoitzak, abestiak, olerkiak, esaera zaharrak.

IKAS HIZTEGIA (1972)

Hiztegitxu honek 10.000 berba dakar, azalean esaten dan moduan «bizkaieratik eta gipuzkeratik» hartuak. Egileak Jose Antonio Montiano eta Jose Ramon Urkijo dira, Karmelo Etxenagusia eta Xabier Peña aholkulari dituela.

Lehenengo zatian euskeratik erderara itzultzen ditu hitzak; bigarrenean, barriz, erderatik euskerara.

Liburu hau asko be asko zabaldu zan, praktikoa ezeze neurrikoa be bazan eta.

NORA ZOAZ (1969): IÑAKI GOIKOETXEA

Ikusiz eta pozik euskera ikasteko asmoagaz sortutako liburua da. Umeentzat eskolan erabilteko libururik ez egoala ikusita, *Euskerazaleak Alkarteak* sariketea eratu eban euskera ikasteko bide barri bat bilatzeko. Saria orduko *Bizkaiko Aurrezki Kutxak* ipini eban, 50.000 pezetakoa. Sariak berak erakusten dau zelako maila edo garrantzia emon gura jakon lanari; behar egi-



teko maila ona ezarri gura zan. Irabazlea Iñaki Goikoetxea izan zan, Luis Larrinagaren apaingarriak dituala.

Lan honen ekarpena da hizkuntza irakasteko bide lez irudiak hartzea. Abestiak be sartzen dira, eta ahozko hizkeratik hartutako esamoldeak. Amaitzeko, aditz-joko batzuk eta hiztegia dakarz.

GIZA-SOINA (1970): IÑAKI GOIKOETXEA

Hau be umeei irakasteko liburua da. Izenburuak berak di-noenez, giza gorputza da gaia: hazurrak, giharrek, birrikak... Iru-diz horniduta dago hau be, eta ahozko hizkuntzaren erreferentzia dauka.

Hizkuntza ikasteko metodoa izateaz ganera, jakintza-edukiak be zabaltzen ditu, herri-jakituriatik guztiz aldendu barik edozein kasutan.

AURTIXOA I ETA II

Liburuok irakurgai errazak dira, leiduten hasten diran umeei zuzendutakoak. Izenburuak berak adierazten dau haurtxoentzat eginda dagozala, lehenengo letrak, berbak eta esaldi laburrak irakurten hasten diranean erabilteko.

Estetika oso polita daukie, marrazki eta kolore egokiakaz adin horretako umeentzat.





Alkarteak ateratako liburuok berehala zabaldu ziran. Hainbestearaino ze, 1972ko memorian honan esaten da:

«Irarri doguzan idaztieri buruz, esan daigun, barriz irarri dogula Aurtxo deritxona, umeendako ta gaztetxoendako egiña.

Nora zoaz idazti ederra, agortu egin jaku, amar milla egin genduzan arren. Baiña barriak irarkolan daukaguz egiten.

Iniciación al estudio del euskera ori be barriz atara bearra izan dogu, 45.000 egin doguzan arren. Esan bearrean gara, azkeneko oneik, uri zati zarreko Artekale ta Somera'ko salerosleen laguntzarekin lortu dogula.

Idazti bikain oneik, duan (debalde) zabaltzen doguz, banan-banan, naiz ikas-toletako taldeetan. Eta zorionez, oneik zabaltzeko ardurarik ez dogu izaten; berez joaten dira».

ALKARRIZKETA (1979)

Era errazean euskeraz trebatzeko pentsautako testuak dira. Alkarrizketa eran idatzita dagoz, eguneroko bizimoduko hainbat egoera erakusten dirala.



Barriro be alkarrizketara joten da hizkuntza irakasteko. Ahozko erregistroaren bitartez, mintzamina landuta, ikasteko metodologia nagusitzen da barriro be.

Irakurgaien artean *Irakurgai errez politak* bildumako hamahiru izenburuak be aitatu beharrekoak dira.

Hasi barri diran ikasleentzako irakurgaiak dira, hiztegi laburra erabilten dabenak, arazo barik aurrera egiteko. Era ezbardinetako testuak dira, baina oraingoan be antzerkiak eta alkarrizketak leku apartekoa hartzen dabe.


Euskalerriko ipuinak I eta II: Barandiaran eta Azkueren herri-ipuinen bildumetatik hautaturikoak jasoten dira, Jose Luis Beobidek bizkaieraz ipinita.

Hizkuntza ikasi ahala euskal kulturagaz jabetzeko modu bat da, gure herri ipuinen bitartez.

MEZA LIBURUAK

Alkarteak beste zerbitzu batzuk be bideratu ditu; kasurako, mezea euskeraz jarraitzeko lehengo argitalpenak. Halango batzuk modu errazean zabaltzeko moduan atera ebazan, *Alkartu*





danok izenekoa eta *Mezearen egunerokoa* doguz horren erakusgarri.

Izan be, Bilboko euskaldun eta euskalzaleek batzeko leku bardintsuak eukezan, eta horreetariko bat San Antonen domeka goizean emoten zan euskerazko mezea zan. Giroa aldatzen joiala argi dago, eta zabaltasun horren zantzuak kultura esparru askotara heldu ziran: dantza-taldeak, abesbatzak, txistulariak, Santa Ageda eta Olentzero egunetako errondak...

Kultura jarduera horreetariko asko eta asko Eleizearen aterpean egiten hasi ziran, apurka-apurka bakotxa bere bidea hartzen hasi arte.

Eleiza barruan be, mezak euskeraz egitea aurrerapauso itzela izan zan. Horretan aintzindaria izan zan San Antoneko arduraduna, don Klaudio Gallastegi. Bilboko euskaltzaleen artean behingoan zabaldu zan haren entzutea eta han eukiten eben alkartzeko unea.

Eta *Euskerazaleak Alkarteak* eskari horrerri erantzunez, mezea jarraitzeko esku-liburu eta orriak atera ebazan, txukun-txukunak atera be.



EGUTEGI TAKOA


Euskerazaleak Alkarteak, Euskerazaintzagaz batera, osterantzeko beste liburu batzuk be bideratu ditu, Iñaki Zubirirenak kasurako.

Argitalpenen artean ahaztu ezinekoa da takoa, 1981etik aurrera urtero egiten dan egutegia, Aranzazukoaren formatu beretsuaz egina: egun bakoitzerako irakurgai labur bat.

Gure artean Almanakak egiteko tradizino handia egon izan da; Iparraldean gehiago beharbada, baina gure inguruan be ezaguna da. Tradizino horrerri jarraituta, urtean-urtean argitaratzen da, baita orain be, urte osoko egunean-eguneango orritxua daukan takoa. Egunari buruzko informazinoa dakar: zenbakia, jaia, santoral... baina beste era askotako irakurgaitxuak be bai, dala pasadizuren bat, dala idazleren baten irakurgaitxu bat...

Gure herrietan euskeraz leiduten ikasi bako euskaldun askok zorrotz irakurri izan dabez eguneko idaztitxu laburrok. Izan be, eskolatu bakoak neke barik jarraitzeko moduko testuak dira, konturatu barik zaletu eta trebatzeko.

Urte askoan eskari handia euki izan dau eta lortu dau alfabetaubako euskaldunek be egunean-egunean irakurgaitxu bat euskeraz leidutea.





EUSKERAZALEAK

alkarteak konbita egiten deutsu
erakundearen sorreraren

50. URTEURRENA
ospatzeko ekitaldira.

Bilboko Carlton hotelean izango da, 2017ko
maiatzaren 15ean arrastiko 18:30ean.

Parte hartuko dabe:

Klaudio Barroeta, Euskerazaleak alkartearen zuzendaria
Izena Abizena, Bilboko Udaleko kargua
Izena Abizena, Bizkaiko Foru Aldundiko kargua

Etortekoa bazara, izena emon mesedez:
euskerazaleak50urte@gmail.com
944 43 76 84



Euskerazaleak web orrialdea.



SAREKO ARGITALPENAK

Euskerazaleak barrikuntza bideetan sartu da euskal literatura sare bidez zabaltzeko egitasmoagaz. Alkarteagaz literatura estua eta sendoa euki dabe Bizkaiko idazlerik oparoenetako batzuk, bai Euskerazaleak bai Euskerazaintza alkarteetako kide izandakoak, eta hareen lanak sarean batu ditu www.euskerazaleak.biz helbidean. Hor dira Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Aita Lino Akesolo, Martin Olazar idazleen idatzi guztiak eta Umandiren *Asmo-iztegia*.

Idazle handion lanaren ondoan dira beste hainbatenak be: Martzel Andrinua, Anton Landajueta, Bixente Latiegi, Iñaki Zubiri, Juan Angel Etxebarria Martin, Martin Olazar, Mikel Zarate, Patxi Bilbao Atxikallende, Paul Atutxa, Paulin Solozabal eta Pedro Pujanarenak kasurako.


Idazle bakotzak corpus itzela dauka, normalean han hor hemen lehenago argitaratuta, dala aldizkarietan dala liburuetan. Baina horrezaz ganera, inoiz argitaratu bako hainbat idazlan be eskuratu ditue danak batera sarean edonoren eskura jartzeko.

Sorkuntzako genero guztietakoak (nobela, poesia, saioa, artikulatuak...), neurri guztietako idazlanak osotzen dabe corpora.

Ikertzaile eta irakurleek badaukie zer aztertu eta zer leidu bertan; izan be, gizarte osoak eskertzeko moduko beharra egin dabe, idatzi corpus zabal hori, dana batu eta sarean ipinteagaz.



LANDAJUELA, Anton



333
OROIPEN ETA IKUSPEGI

AUGUSTIN ZUBIKARAI

ZIPITRIA'tar ELBIRE
"ANDERENOA"
OMENALDIA



EUSKERAZAINZA'K

RITA ONAINDIE
MILA
EVSKAL-OLERKI
EDER



E
G
I
E
D
E
R



URRE BITZA

Atela anai biak
Los hermanos Atela

Atela Andikoetxea Pedro anai (S.J.) (1867-1944)
Atela Andikoetxea Doroteo (Oratorio) (1866-1936)

Martin Olazar Uribe

ADITZA



ACIONES DEL VERBO VASCO VIZCAINO
IKASI TA ZABALDU!

Euskeran urrak amak
euskaraz irakatsi;
euskeraz maitu-maitu
zabaltu nigar lortu.
(Arretoa ta Baitak)

PERRO EUSKARA



BESTE JARDUERA BATZUK

Beste arlo batzuetan lez, literatura sorkuntza bultzatzeko be lehiaketa bidea hartu eban Alkartek: idazle barriak sortzea eta aldizkarirako idazle-irakurle barriak erakartea zan asmoa.

Ipuin-sariketea aspaldiko jardurea da; 1980. urtetik hasita urtero-urtero egiten dana, Gabonetan hain zuzen be: «*hizkuntza batek idazle eta idatziak ugari behar dituala-ta*». Idazlan sarituak ZER aldizkarian argitaratzen dira eta idazleek diru-saria hartzen dabe.

Hizkuntza eta kulturearen zabalkundeari begira urtero egiten dan beste jardurea bat, “*Euskal Astea Bizkaieraz*” deritxona da. 1984an hasi ziran egitasmo honegaz. Astebeteko egitaraua eratzen dabe, hitzaldien bidez osoturiko programa. Eurotan lantzen diran gaiak, euskal hizkuntza eta kulturari buruzkoak izaten dira. Saioak jente guztiari zabalik dagoz eta doan izaten dira. Bertatik igaro dira literatura, historia eta jakintza-arlo askotan jakitunak diran hainbat eta hainbat aditu.

Ekintza guztiok aurrera eroateko, hainbat laguntzaile izan ditue urteotan zehar: *Caja de Ahorros Vizcaina*, *BBK*, *Caja de Ahorros Municipal de Bilbao*, *Bilboko Udala*, *Bizkaiko Foru Al-
dundia* eta *Eusko Jaurlaritza*, besteak beste.

“EUSKERAZALEAK” IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau.

Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuinen itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzera, orri-aldi bi, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraiaren azkenarako gure lan-etxean (Colón de Larreategui 14, 2.º eskoia) izan bearko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.º 25.000 pezeta; 2.º 20.000 pezeta eta 3.º 15.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe “EUSKERAZALEAK” izango eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik eratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gaiñean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroazan txartela.
- Maikoen erabagia, bagilleko (ekainilleko) ZER'en agertuko da.

1981, epailla.



Kili-kili eguna, Donostia 1978.



BESTE ERAKUNDE BATZUKAZ ALKARLANEAN: EUSKERAZAINTZA, KILI-KILI

Euskerazaleak Alkarteak Kili-Kiligaz lotura estua eta sendoa euki dau, urte batzuetan batez be. Euskeraz eskolatzea izanik erakundearen helburu nagusia, berezkoa da Euskerazaleak Alkarteak babesa emotea Kili-Kiliri. *Lan ta Lan* koadernoak eurek argitaratuak dira, hasieran, lege aldetik euki ebazan arazoak gainditzeko babesa emoteko unea heldu zanean. *Kili-Kilik* harpidetza zabala euki eban urte batzuetan, eta horrek zenbateko behar eta nekea sortu deutsien agirian geratzen da kontu-emoteko aktetan. Ha ta guzti be egin beharrekotzat jotzen dabe.

Kili-Kilik bere bidea egin izan dau gerora, baina erakunde bien artean lotura estuak iraun dau beti, batez be Iñaki Egurrolaren lan eskertuezinaren bitartez.

Euskerazaintza «*Euskeraren Erri Akademia*» deritxona, lehenagoko *Kardaberaz taldearen* oinordeko moduan, guztiz bat eginda egon da *Euskerazaleak Alkarteagaz*; izan be, kide asko bietan dagoz, egoitza bera daukie.

Hori dala-ta, ekintza batzuk alkarregaz egin izan dabez, biek sinatuta agiri dira. Kasurako, Bizkaiko idazle handiei egindako omenaldiak. Halan omendu izan dira: Bedita Larrakoetxea Zeanurin (1980-08-17); Lauaxeta Mungian. (1987-06-17); Aita Lino Akesolo Diman (1989-07-01); Gabriel Manterola Zeanurin (1990-03-17) eta Aita Santi Onaindia (1996-10-19).

Zer aldizkaria eta argitalpen batzuk be biek sinatuta dagoz sarritan.





Euskerazaintza eta Euskerazaleak-eko kideak. Larrea, 2008.



OMENALDIAK

Berrogeta hamar urteko ibilbidean, une esanguratsu asko gertatu izan dira. Omen edo zoriontzeko uneak gogoan hartuta, Zidarrezko Ezteguen ospakizuna ekarri behar da gogora. San Antonen mezea egin eta bazkarian alkartu ziran kide guztiak 1992ko ekainaren 20an. Orduko oroigarri ederrak dira argazkiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak oparitutako plakea.

Beste une gogoangarri bat izan zan Mendebalde Alkartek egindako omenaldia 2011ko jardunaldien barruan. Orduan be hainbat kide batu ziran Mendebalde deituta. Angel Larreak egin eban goralmen-hitzaldia, eta Klaudio Barroeta presidenteak erantzun.



25. urteurrenean alkarteko kideak San Antonen 1992.



EUSKERAZALEAK ALKARTEA
ZIDARREZKO EZTEGUA
1967-1992
EGINKIZUNAK
Euskal-Astea (Bagillaren 15'etik 19'ra)
Meza Santua (San Anton'en)
Lagunarteko bazkaria.
1992-6-20.



Mendebalde Alkartearen omenaldia, 2011.



Ekitaldi bi horreei berrogeta hamargarren urteurreneko ekitaldiak gehitu behar jakez. *Bilboko Udalak* eta *Bizkaiko Foru Aldundiak* babestuta eta *Labayru Fundazioaren* laguntasunagaz, urteotako memoria berreskuratzeko bideoa eta liburua argitaratzeaz ganera, Carlton hotolean ekitaldia egin da, hasierako ha gogoratzeko. Bertan batu dira Alkartegaz era batera edo bestera

hartu-emonu euki daben hainbat eta hainbat euskalzale: ikasleak, irakasleak, idazleak, laguntzaileak, herri-agintariak...

Hizlari egon dira: Lorea Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputadua; Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea; eta Klaudio Barroeta, Euskerazaleak Alkartearen presidentea. Hona euren hitzaldiak.



Euskerazaleak alkartearen 50. urteurrena Carlton hotolean 2017ko maiatzaren 15ean.



DANOK EUSKERAZALE

Lorea Bilbao

Euskerazaleak Alkartek 50 urte bete izanak alkartu gaitu gaur hemen.

Izan be, guztiok gara euskerazaleak hemen, bakotxa bere arloan.

Eta orain berrogeta hamar urteko gogo eta adore beragaz bat egiten dogu gaur *euskerazale* izate horregaz. Euskerazale barik gure hizkuntzak ez eban egingo egindako ibilbidea eta etorkizuna be iluna eukiko leuke.

Halantxe sortu zan Alkartea orain 50 urte, arlo eta zeregin guztiz ezbardinetan ziharduan jentea alkartuta: lege arlokoak batzuk, Jesus Oleaga eta Adrian Zelaiaren kasua; kultura arlokoak beste batzuk, Jesus Atxa eta Leopoldo Zugazaren moduan; literatura eta banku-lana alkartzen zituan Eusebio Erkiaga idazle bikainak; kazetariak ziran beste batzuk, Miguel Angel Astiz eta Bengoa Zubizarreta jaunak; negozio arloan ziharduan Jose Ezpeleta jaunak; kultura tradizino sendokoak genduzan Jose Ramon Urkijo eta Carlos Gonzalez Etxegarai; ikastolen mobimentuaren sortzaileetarikoa genduan Julita Berrojalbiz andrea.



Eta horixe da gaur egun be nahiko geunkena, gure hizkuntza gizarte alor guztietan lehenetasuna izatea, alor guztietako jentearen, gizarte eragileen eta erreferenteen agendetan lehenetsita agertzea. Horixe da helburu doguna, horixe da gure nahia, gero eta gitxiago izatea euskera euskaldunon eta euskalgintzat hartzen dan horren helburu bakarrik, eta gero eta gehiago izatea gizartearen gainontzeko alorretako helburua



be. Edo ateratzen dogu delako euskalgintzatik eta hedatzen dogu gizartearen alor askotarikoetara edo euskereak jai dauka. Eta jai eukiko dogu gizarte elebiduna nahi dogun guztiak.

Garai barri baten gagoz bai, eta garai barri horrek dakar beragaz euskalgintza erdigunean izatetik gizarte osoa erdigunean jartzea.

Oraingotik ikusita, egoera guztiz bestelakoa zan ordukoa; askoz gaxagoa. Baina, ha ta guzti be, euskal hizkuntzaren aldeko jarrera sendoak eta horretan sinesteak bultzatuta, aurrera egin eben aurrera, eragozpenak gorabehera, orduko sortzaileek. Eta hareen ondoko eta oinordeko gara gaur egun eta hemen euskerearen alde dihardugunok.

Horixe da Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasuna, euskeraren gaia gizarte osoaren gaia izatea eta ez euskeradun garenona bakarrik edota euskaltzale sentitzen garenona. Gizarte osoa euskerazale eginaz bakarrik lortuko dogulako aurrera egitea, garai barriak hori esan nahi dauelako, etxeko txoko gozotik atera eta plazara ateratzea, plaza hotzera ateratzea.

Aldundiaren izenean zorionak emon gura deusadaz Euskerazaleak Alkarteari ospakizun honetan. Urteotako ibilbi-

dean luzaroan izan gara bidelagun, gaurko ekitaldian bertan garan legetxe.

Euskerazaleak Alkartearen helburua bere izenean bertan dago ondo agirian: “Euskerea erabiltearen aldeko alkartea”. Eta horixe berori da ointxe be, gure zeregina, gure erronka nagusia: euskerea berez-berez eta ingurune guztietan erabiltea, danetan eta danok, edota errealista izanda, gero eta gehiagotan eta gero eta gehiagok, eta horretarako baldintzak ipintea jagoku administrazioei. Alkartea sortu zanean euskereak ez eukan lekurik erakundeetan, eta horixe izan zan, hain zuzen, sortzaileen lehenengo zeregina. Gaur egun, oster, erakundeok hartu dogu orduko aintzindarien lekukoa, eta aitortu beharreko euren ahaleginari esker heldu gara neurri handi baten egoera barri honetara.

Euskerazaleak Alkartea Bilbon euki dau indarririk gehien beharbada; ha ta guzti be, bizkaitar guztiak izan ditu gogoan eta helburutzat.

Orain geure ardurea dogu gure aurrekoek itxi deuskuen ondarea etorkizunerantz eroatea eta euskerea erabili egin daiten bideak egitea. Danon artean egin beharrekoa dogu, danok garalako Euskerazaleak.



Zorionak EUSKERAZALEAK!

Juan Mari Aburto

Eskerrik asko por invitarme a este acto, que es muy significativo para mí, por lo que significa..., por el trabajo que habéis realizado desde hace 50 años..., en épocas de la historia donde luchar por nuestra lengua era jugarse la vida, era difícil vivir en euskera...

Eskerrik asko a todos los que habéis integrado, desde sus orígenes hasta hoy, EUSKERAZALEAK.

Es un gran trabajo el que realizáis, cuidando, fortaleciendo, enriqueciendo con la enseñanza primero y después con la investigación de los dialectos que ha habido en la historia del euskera, trabajando para lograr un euskera más unificado.

Antes de la guerra Bilbao era un referente en relación con el Euskera. Pero con la guerra Bilbao perdió ese liderazgo y el euskera se resintió en nuestra ciudad perdiendo euskalzales.

Vosotros trabajasteis enseñando a todo el que quería amar y vivir nuestra lengua, aquí cerquita, en Colón de Larreategui, para que no se perdiera. Además os encargasteis de investigar y estudiar el idioma, el cual ha llegado reforzado a nuestros días.

Eskerrik asko de verdad, por conservar y fomentar nuestra lengua.

Eskerrik asko ekitaldi honetara gonbidatzeagatik. Niretzat oso esanguratsua da haren esanguragatik... duela 50 urtetik hona egin duzuen lan bikainagatik... noiz eta garai ilun hartan, gure hizkuntzaren alde borrokatzeak bizia arriskuan jartzea ekar zezakeenean, euskaraz bizitzea zaila zenean...

Eskerrik asko sorreratik orain arte EUSKERAZALEAK Alkarteko kide izan diren eta orain zareten guztioi.

Lan bikaina egiten duzue, hasteko, irakaskuntzaz eta gero ikerketaz, euskararen historian izan diren euskalki guztiak zaintzeko eta indartzeko. Lan bikaina egiten duzue euskara batuagoa lortzeko.

Gerra aurretik, Bilbo euskararen erreferentea izan zen. Baina gerra zibilaz galdu zuen lidergo hori eta euskarak galera handiak izan zituen gure urian, besteak beste, euskaltzale asko galduz.

Zuek lan egin zenuten gure hizkuntza maitatu eta gure hizkuntzaz bizi nahi zuten guztiei euskara irakasten. Non eta Colón de Larreategui, hemendik hurbil. Euskara ez galtzeko. Gainera, hizkuntza ikertzen eta ikasten ere ahaleginak egin zenituzten eta euskara orain indartsuago dago.

Eskerrik asko, bene-benetan, gure hizkuntzari eusteagatik eta haren sustapena egiteagatik.

Ez dut handinahi eman nahi. Baina alkate honekin eta udalbatza honekin Bilbok euskararen munduan berriz ere abangoardian egon behar du.



No quiero que suene a pretencioso, pero con este alcalde y esta corporación municipal, Bilbao tiene que volver a ser vanguardia en el mundo del Euskera.

Como sabéis, uno de los ejes principales del Ayuntamiento es salvaguardar y fomentar el uso del euskera.

Trabajamos con el Consejo Asesor del Euskera para potenciar y aumentar su uso. Se está trabajando duramente para lograr la normalización del euskera en los diferentes ámbitos de la vida, fomentando el consumo cultural en Euskera, para garantizar su uso y conocimiento.

El Euskera es un valor de todos que tenemos que preservar, proteger y darlo a conocer por medio de su utilización.

Estoy contento al ver que Bilbao está experimentando, en los últimos años, un acusado crecimiento, gracias a la voluntad y al esfuerzo del conjunto de la sociedad. Aunque aún queda camino por recorrer para alcanzar la igualdad con respecto al castellano.

Como me habéis oído alguna vez: «Bilbao y el euskera van a ir de la mano. Queremos un Bilbao más euskaldun, es uno de nuestros proyectos estratégicos para este mandato. El euskera hay que conocerlo, usarlo y fomentarlo. En una palabra: amarlo».

Reconozco que lo que estamos haciendo actualmente las instituciones, es algo que VOSOTROS empezasteis hace 50 años.

Eskerrik asko por esa gran labor.

“Bilbok euskera behar du. Eta Euskerak Bilbo behar du”.



Dakizuenez, udalaren ardatz nagusietako bat euskararen erabilera zaintzea eta sustatzea da.

Euskararen Aholku Batzordearekin lan egiten dugu erabilera zabaltzeko eta areagotzeko. Bizitzaren arlo guztietan euskararen normalizazioa lortzeko lan handia egiten ari da, euskararen kontsumo kulturala sustatuz, erabilera eta ezagutza bermatzeko.

Euskara denona da eta denok zaindu eta babestu behar dugu, baita erabileraren bitartez ezagutzera eman ere.

Pozik nago, gizarte osoaren nahiari eta ahaleginari esker, Bilbon azken urteotan izandako hazkundeagatik. Hala ere, oraindik aurretik bide luzea dugu euskara gaztelaniaren parean egon dadin lortzeko.

Behin baino gehiagotan esaten entzun didazunez: “Bilbok eta euskarak eskutik joan behar dute. Bilbo euskaldunagoa nahi dugu. Agintaldi honetarako proiektu estrategikoa da. Euskara ezagutu, erabili eta sustatu behar da. Hitz batez: maitatu”.

Onartzen dut erakundeetan orain egiten ari garena ZUEK orain 50 urte hasi zenuten zerbait dela.

Eskerrik asko, beraz, zuen lanagatik.

“Bilbok euskara behar du. Eta euskarak Bilbo behar du”.



50 urte euskeraren alde

Klaudio Barroeta

Euskerazaleak Alkarteko kide eta lagunak,

Egun pozgarria da gaurkoa, gure Alkartea sortu zala berrogeta amar urte bete diran onetan ainbeste kide eta lagun geugaz batera ikustea, Bilboren erdi-erdian, Eusko Jaurlaritzak bere leenengo egoitza euki eban jauregi eder onetan.

1967an sortu zan Euskerazaleak Alkartea. Maiatzaren 14an legepetu eben gure aurretikoak, sortzaileak. Urte gogorrak ziran ordukoak, batez be euskera, euskal jakintza edo euskal ekintza zan guztiarentzat. Baina orduko gure gizon eta emakume euskalzale batzuen borondatea be sendoa zan eta jaretxi eben gure izkuntzaren alde zirrikitu bat edegitea: lege babesa izango eban erakunde bat sortzea, euskerea Bilboko eta Bizkaiko gizartean irakasteko eta zabaltzeko.

Estatutoak onartu, zuzendaritza batzordea osotu, kideak bilatu, dirusariak batu... eta geldiro-geldiro Euskerazaleak Alkartea bidean ipintea. Artean ameseta utsa zana benetako biurtzea. Gogoz eta borondatez.

Euskera ekienak eta ez ekienak batera alkartu ziran Euskerazaleak Alkarteari arnasa emotera asieratik bertatik. Emakume eta gizonezko areen izenak banan-banan aitatzen ez naz asiko. Bilboko eta Bizkaiko orduko gizartean itzala eta ospea eben ain-

bat jaun-andraren izenak. Eretxi guztietakoak, baina euskerazaleak guztiak.

Mende asieran izan ziran gure artean izkuntzaren eta literaturaren bidean jente garrantzitsua: Resurrección Maria Azkue eta Ebaristo Bustintza Kirikiño, kasurako. Areen bidetik, euskeraren munduan izena euki daben idazle edo izkuntzazaleak be ainbat izan dira gure Alkartearen babesleen artean: Jesus Oleaga, Karmelo Etxenagusia, Eusebio Erkiaga, Augustin Zubikarai, Abeletxe, Iñaki Zubiri, Anton Landajuela, Martin Olazar ..., leengo batzuk aitatzearren.

Leenengo urteetan ospe eta indar andia irabazi zituan gure Alkartek. Alan, esaterako, 2.700 kide zituan 1972. urtean.

Zer aitatu beren-beregi, Euskerazaleak Alkartek 50 urteotan egin dauen lan ugari orretatik?

Eldu eta gazteei euskera irakastea, leenengo eta bein. Ezer ez ekienei irakatsi batetik, eta ekienei euren izkuntza lantzen eta obetzen lagundu. Urte batzuetan 500 ikasletik gora ibili dira gugaz euskera ikasten.

Euskerearen irakasbide liburuak, iztegiak, literatura sor-kuntza liburuak, umeentzako langaiak... danetarik sortu eta argitaratu dau gure Alkartek luzaroko ibilbide onetan.



Iñaki Egurrola, Klaudio Barroeta, Paul Atutxa eta Karmele Fernandez, 2017.

Zer aldizkaria ileroko legez argitaratzen asi ginan 1977garren urtean, eta arrezkero utsik egin barik atera dogu illero illero gaur arte. Aldizkarian idatzi dabenak asko eta asko dira. Joan diranetariko batzuk aitatzeko, Augustin Zubikarai, Lino Akesolo, Manuel Estonba, Aita Onaindia eta beste asko.

Gaurko eguna guztiontzako zorion eguna da. Ez dira alkarte eta erakunde asko Euskal Errian, *Euskerazaleak* legez 50 urte bizirik iraun dabenak.

Zorionak, Euskerazaleak-en kide eta lagun guztioi.



*Amaia Mujika, Karmele Goñi, Carmen Miranda
eta Leopoldo Zugaza.*



*Mikel Unzueta, Mitxel Unzueta, Carmen
Miranda eta Leopoldo Zugaza.*



Carmen Miranda, Leopoldo Zugaza, Ander Manterola, Gurutzi Arregi, Adolfo Arejita eta Miren Josune Ariztondo.



Carlton hotelako aretoa bete egin zan.



*Jose Ramon Azurmendi, Pedro Mari Basañez,
Iñaki Prieto, Gaspar Fernández de Larrinoa.*



*Bingen Zupiria eta Miren Dobaran, Eusko Jaur-
laritzako HPS eta Kulturako sailburua eta sailbu-
ruordea, Karmele Goñi agurtzen.*



Iñaki Egurrola, Adrian Zelaia eta emaztea.



M^a Luisa Romarate, Rafá Agirre, Izaskun Agirre eta Akaitze Kamiruaga.



Margari Alonso irakaslea eta ikasle taldea.



Sara Erkiaga, Amaia Olaortua, (Eusebio Erkiagaren alabea eta lobe), Juan Ignacio Montiano (Jose Antonio Montianoren lobe) eta emaztea.



Pedro Santin, Mertxe Górrontxategi eta Joseba Lizarazu.



*Iñaki Egurrola, Mila Arrieta, Pili Zuazo,
Carlos Olabarriaga, Kili-kiliko taldea.*



Elisabet Bizkarralegorra eta Urduñako Euskerazaleak taldearen arduradunak Ebantzi Larrieta eta Jone Asua.



Miren eta Txaro Mujika, Eloie eta Miren Basañez.



Emile Garai eta Igone Etxebarria.



*Juanra Ibarra, Rafa Agirre, Igone Etxebarria,
Jon Elorriaga, Ander Manterola eta Gurutzi
Arregi.*



Iñaki Esparza, Juan Manuel Etxebarria eta Angel Larrea.



Ana de Castro, Gotzon Lobena, Jabier Arrieta, Gabin Azaola eta Cesar Gonzalez de Heredia.



Ascen Heras, Teresa Martínez de Rituerto, Pilar Díaz de Cerio, Jon Elorriaga, Karmele Fernández de Guinea, Esther Bringas.



Mari Carmen Gabikagogeaskoa, Idoia Tolosa, Ana Mari Gabikagogeaskoa, Amaia Elizondo, Josune Elizondo.

Euskerazaleak Alkartea 1967an sortu zan Bilbon, euskaltzale batzuk euskereari aitortza egiteko eta irakaskuntzan sartzeko premia ikusten ebelako. Euskerearen aldeko lehenengotako alkartea dogu diktaduraren amaierako garaian. Sortze-agiria hamasei lagunek sinatuta dago, baina behingo baten batu jakezan beste asko be, euskerearen alde egin guran. Martxan hasi eta lasterrera 3.000 bazkide eukitera heldu ziran.

Euskerearen estatusa lantzen hasi ziran: euskerea irakaskuntzan sartzeko lanak, lehenengo ikastoletarako baimenak lortzen laguntzen; baita erabileraren aldetik be: material didaktikoak sortzen, irakasleak prestatzen, agiriak emoten ekarpen itzela egin eben.

Ordutik berrogeta hamar urte joan diranean, ibilbidearen barri erakusteko memoria-liburua da hau, Alkartearen historian ibilitako personak, egindako lanak eta oraingo egoera erakusteko.

EUSKERTAZALEAK

